



Mekolaia etxebarría (-a) etxebizitza

Aldaerak:

Ahozkoa: Mokóla etxebarrídx



43° 10' 8"

2° 33' 46"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Mekolaia (**Ikus Mekolaia**) baserriarekin lotutako eraikina da hau, 1930eko hamarkadan eraikitakoa. Jatorrizko baserritik hartzen du izena, etxe berria dela adieraziz. Horrela, 1967ko Udal-errolan *Mocolaechevarri* (BUA, CE) moduan agertzen da. Auzotarren artean, jatorrizko baserritik bereizteko *Mokóla etxebarrídx* forma erabiltzen dute, nahiz eta maiz etxe biak *Mokóla* moduan aipatzen diren.

XX. mende hasieran egindako baserria, L baten itxurako oinplanoaren gainean, 1979an berritze obrak jaso zituen eta 2011n guztiz berriztatu egin dutena. Gaur egun, fatxada na-

gusietako hormak harri-bistakoak ditu eta ostetan, berriz, hormak luzituta ageri dira, harlandua kantaletarako bakarrik izanik. Edozelan ere, leiho eta ateburuak dinteldunak dira, hori bai, giltzarri moduko bat dutenak gailenduta. Atartea ertz batean dauka. Solairu bi dauzka eta ganbara. Lehenengo solairuan balkoian jarri dute indarra eta ganbaran, leiho ireki bietan, sasoiko erregionalismoari jarraituz eginak. Egurrezko egitura imitatuz burutu zuten etxea, adreilua eta harrizko mentsulak erabiliaz. Teilatuak bi isuritakoak dira.

toponimia

Mekolaia izenaz osatutako etxe izena. Esan dugun legez Bizkaian ohikoa da etxe izenetan auzoaren edo zaharragoa zen beste baten izena agertzea eta horregatik Bizkaiko deiturak dira Euskal Herrian luzeenak gure deiturak etxe izenetatik sortu baitziren. Kasu honetan izenaren bigarren osagaiak Mekolaiaiko etxe barria dela adierazten du.